

Premia/eskola 2.0 sareaz oinarritzko ikastaroa.

7.- NAS (Sare bidezko biltegiatze sistema).

AURKIBIDEA

7.	NAS (SARE BIDEZKO BILTEGIRATZE SISTEMA)	1
7.1.	Definizioa eta Konexioak	1
7.2.	NAS-aren Pizte/Itzaltze prozesua.....	2

7. NAS (SARE BIDEZKO BILTEGIRATZE SISTEMA)

7.1. DEFINIZIOA ETA KONEXIOAK

NAS-aren DEFINIZIOA: Sare bidezko biltegiratze sistema (NAS), zerbitzarien biltegiratze gaitasuna era seguru eta malguan handitzea ahalbidetzen duen gailua da. LAN sarera eta zerbitzarira konektatzen da sare kable bitartez.

Argazkian ikusten da gailua nolakoa den:




NAS-ak hainbat disko gogor dauzka barnean (hasieran, **4 TB-eko 3 disko gogor**, baina gehiago jarri daitezke diskoak kokatzeko ziritu librearen arabera) eta **RAID 5** (disko batek huts egiten badu beste bi diskoetatik informazioa berreskuratzea ahalbidetzen duen sistema) bezala konfiguratuta daude.



NAS-a, sare kable bitartez, zerbitzarira eta sarera konektatzen da. NAS-ak, USB bitartez, **4 TB-eko 2 disko gogor** dauzka konektaturik non zentroetako datuen segurtasun kopiak egingo diren.


7.2. NAS-AREN PIZTE/ITZALTZE PROZESUA

7.2.1.- NAS-aren pizte prozesua.



Lehenik eta behin **NAS-a** piztuko da eta ondoren **zerbitzaria**. Garrantzitsua da ordena hau jarraitzea, bestela, NAS-ak ez du era egokian funtzionatuko.

7.2.2.- NAS-aren itzaltze prozesua.



Lehenik eta behin **zerbitzaria** itzaliko da eta ondoren **NAS-a**.